



IIII BARNE INFORMAZIOA

Irakasleak ere ikasle,
Baketik erakundearen
eskutik



IIII SOLASEAN

Irakastorduz kanpoko
ekintzak hizpide,
gure irakasleekin

2012
UZTAILA

36



aballarri

EGAPE IKASTOLAKO ALDIZKARIA

Ez adiorik!...





Jonan Fernandez, Baketik erakundearen zuzendaria.

GU ERE IKASLE

Irakaskuntza-ikaskuntzaren gorpolean gabiltzan irakasleoi, normalean egokitzen zaigun rola irakastekoa da: irakasleok izaten gara normalean ispilua non ikasleek bere burua begiratzen duten.

Baina ikasleentzat hain garrantzi handikoa den eredu hori dinamikoa izan behar da; gizartea bezain dinamikoa. Izan ere, eredu behin eta berriro egokitu behar da gizartean sortzen diren aldaketa eta berrikuntzetara moldatzeko, ahaztu gabe prozesu bizi horren oinarria zein den: bizikidetzeta, elkarbizitza.

Hori dela eta, ikasturte bukaeran rola aldatzea egokitu zaigu eta ikasteko abenturan sartu gara. Horretarako, irakasleok ikasle bihurtu gara eta elkarbizitzaren inguruan formazioa egin dugu, Baketik erakundearen eskutik.

En el ámbito pedagógico, normalmente, los profesores/as somos desarrollar un papel determinante: el de docentes. Sin embargo, no debemos olvidar que el proceso de enseñanza-aprendizaje es un proceso dinámico e interactivo. Es por eso, que constantemente los profesores/as debemos pasar al otro lado de la barrera y convertirnos en alumnos/as, para luego, poder poder aplicar con nuestros pupilos/as lo que hemos aprendido.

Teniendo en cuenta estos preceptos, en este fin de curso hemos realizado una formación, impartida por Baketik sobre el tema de CONVIVENCIA.

IZAN PROPOSAMENA

Pertsona izaten hezteko zortzi ikaskuntza

PERTSONAREN DEFINIZIOA

Hobetzeko gaitasuna duen izakia

HELBURUAK

- Hausnarketa eragitea bizitzarako et elkarbizitzarako lehenentasun nagusiari buruz
- Baliabide pedagogikoak eta didaktikoak eskaintzea bizitzarako eta elkarbizitzarako zenbait bizi-ikaskuntza funtsezko ordenatzeko
- Bizitzarako eta elkarbizitzarako heziketan zer ikaskuntzak diren lehenentasuna argitzen laguntzea.
- Eskolan nahiz familian, oro har, hitz egiten ez diren edota gutxitan lantzen diren gaiak hartzeko estrategia errazak eskura izatea.

ZORTZI IKASKUNTZAK

1. Gizakion izaera mugatua
2. Esker onaren zentzua
3. Kontzientziari entzutea
4. Giza duintasunaren esanahia
5. Elkarriketaren plusa
6. Enpatiaaren plusa
7. Pazientziaren plusa
8. Maitasuna

PROPUESTA IZAN

Ocho aprendizajes para educar en ser persona

DEFINICIÓN DE PERSONA

Ser con capacidad de mejorar

LOS OCHO APRENDIZAJES

1. La limitación humana
2. El sentido del agradecimiento
3. La escucha de la conciencia
4. El significado de la conciencia humana
5. El más del diálogo
6. El más de la empatía
7. El más de la paciencia
8. El amor

Ikasturteko hainbat une

DBH 3

Oñatiko Araotz auzoan 3. mailako ikasleek ibilbide bat egin zuten bertako hegazti kolonia behatzeko (ezkerrean).

Behean, ikasle batzuk Araotzeko zubian.



DBHko maila ezberdinetako ikasleen ordezkariak bildu ziren Lekaio kultur etxean, eskolako Agenda 21ean eginiko lanak aurkezteko eta alkateari zuzendu beharreko proposamenak biltzeko.



DBH 4

4. mailako ikasleek Ibaialde kanpaina parte hartu zuten. Irudian Trankatz errekan ageri dira, korrontearen abiadura neurtzen.



DBH 2

2. mailako ikasleak XVI. mendeko Igartubeiti baserri-museoan izan ziren. Euskal baserriaren Urrezko Aroa hobekien islatzen duen baserria da.

LH 1. zikloa

Agenda 21

Bioaniztasuna dela eta, aurten, Agenda 21etik lehenengo zikloko ikasleei gure inguruan dauden basoak aztertzeko proposamena iritsi zitzaigun.

Pozik eta gauza asko ikusi eta ikasteko asmoz irten ginen ikastolatik gure inguruko zuhaitzak aztertzerantz: zuhaitz mota ezberdinak, inguruko animaliak eta landareak, nola zainduta dauden, ingurua kutsuta dagoen edo ez, eta abar.

Azterketa sakona egin ondoren eta ekosisteman basoek duten garrantziaz ohartuta ikastolara itzuli ginen gelako lana egitera. Gustura aritu ginen.



Dentro del proyecto de Agenda 21, este curso hemos tratado el tema de la biodiversidad. Hemos hecho el diagnóstico del centro y hemos realizado varias salidas con los alumnos/as para conocer y analizar nuestro entorno: conocimiento del bosque, parques del pueblo, río...

LH 2. zikloa

Irrati esatariak

Kaixo, kaixo!

Hemen gaude bigarren zikloko esatariak Azkorteiko ikastetxean dagoen emisoran, gaurko irratsaioari hasera emateko asmoz. Esperientzia berria ez izan arren, oso urduri gaude mikrofono batetik hainbeste entzulerentzako ondo hitz egiteak dardar batean jartzen gaituelako.

Programazio interegarria dugu gaurkoa: albisteak, olerkiak, txisteak, elkarriketa eta horrenbeste gustatzen zaigun bingoa. Guztiak gelan egindako lanetatik bildutakoak.

Irratsaioari hasera ematen dion bonbilatxoa piztu da. Ai ama, has-tera goaz! Animo lagunak!

La radio es un recurso pedagógico sin igual para trabajar las competencias lingüísticas de manera lúdica y significativa en la escuela.



Adarra irrati, Egape ikastolako irrati

En nuestro proyecto educativo Egape, tenemos programado la utilización de este recurso desde el primer curso de Educación Primaria.

laguntzaileak



LH 3. zikloa

Ikasteko irakurri

Egape Ikastolan 2010-11 ikasturtean ekin genion irakurketa uler-korrari buruzko formazioari 3. Zikloko irakasleok Lasarteko Berritzegunera joanez, Salamancako unibertsitateko irakaslea den Emilio Sanchez jakintsuaren ardurapean eta ondorengo urteetan ere ildo horretatik jarraitzeko asmoa dugu irakasle kopurua gehituz ikastetxe osora.

“Ikasteko irakurri” ardatzak haxe azpimarratzen du: **irakurketa**, eskola esparruan nahiz eskolatik kanpo, **ezagutza garatzeko eta ikasteko funtsezko baliabidea** dela; izan ere, irakurtzen jakiteak eskola arrakasta ezinbestean bermatzen ez badu ere, irakurmena behar bezala garatuta ez izatea eskola porrotaren arrazoietakoa bat da eta norbanakoaren garapen kognitiboa oztopen du.

Modu eraginkorrean irakurtzeko, irakurle konpetenteak burutzen dituen **irakurketaren hiru aldiei** lotutako estrategiak garatu eta landu behar dira. Honako hiru aldiei dagozkien irakurketa-prozesuaren hiru faseak:

Irakurri aurretik:

- Irakurketaren helburua zehaztea.
- Testuaren esanahiaren inguruko hipotesiak eta jakin-mina aktibatzea.
- Testuaren edukiaren inguruan aurretiazko ezagutzak aktibatzea.

Irakurri bitartean:

- Hipotesiak etengabe adierazi eta egiaztatzea.
- Irakurritakoaren gaineko galderak egitea.
- Irakurritako atalen edukia laburbiltzea.

Irakurri ondoren:

- Irakurritakoa laburpen, eskemen eta buru-mapen bidez berrantolatzea.
- Irakurritakoa berrerabiltzea eta ezagutza berria eraikitzea.

Irakurketa-prozesuaren hiru aldi horietan testua ulertzeko oztopoak ager daitezke eta, hartara, irakasleak laguntza ematea funtsezkoa izango da.



Egape Ikastola comenzó a formar a varios profesores/as durante el curso 2010-11 sobre la comprensión lectora en los cursos organizados por el Berritzegune de Lasarte bajo la supervisión del experto en la materia Emilio Sánchez, profesor de la Universidad de Salamanca.

El eje “Leer para aprender” nos plantea que la lectura es fundamental tanto en la escuela como fuera de ella para desarrollar el conocimiento y como herramienta imprescindible del aprendizaje. Para conseguir un lector capacitado es tarea del profesorado ofrecer al alumnado diferentes estrategias que le ayuden a recopilar información del texto, procesarla de forma adecuada, ampliar el léxico, hacer hipótesis y contrastarlas con la información del texto.

laguntzaileak



Urnietako
Idiazabal, 20
943 306 310



Uribarri Etorbidea, 35
Tel. 943 79 46 11
ARRASATE

Polig. Industrialdea
Gavinia kalea, 22-24
Tel. 943 63 30 86 IRUN

Bikaintasuna lortu nahian eta etorkizuneko erronkak bere eginez, 1969tik hona aitzindaritzari eusteko bidea eman digun enpresa-kultura galdu gabe, Auzo Lagun Ausolanen sartu da. Talde handia da Ausolan, eta Mondragonekin, bere lidergoa sendotu nahi du taldeentzako sukaldaritzaz-zerbitzuetan, zerbitzu soziosanitarioetan, eta erakin eta lokalak garbitzeko zerbitzuan.

Ausolanekin
Auzo Lagun indartsuago

IKASTURTEA IRUDIETAN

Et, et... begiratu neri,
ez kamerari. >>



Olentzero joan zaigu...
2 urtekoen gelara >>



Antzerkian oso ondo pasatzen dugu.
Aurtengo antzerkiko "MAX" sariak, 3 urtekoentzat. >>



Puzzleak egiten ere, badakig. Guk ere bai, eta azkarrago.



Pintto, pintto gure txakurra da...



5 urtekoak ostoen bila.



<< Urnietatik Zeraina. Zeraindik...



5 urtekoak herria ezagutzen.



Eskerrik asko aitatxo eta amatxo zuen laguntzagatik. Jolas eta solasen primeran gaude.





...eta bukatzeko, jaialdia!

Jaialdian erromako zubi ederra egin genuen.



Pertsonai mitologiak.

NESKATXA - ILE - HORIA - DA,
 BERE - HANKAK - AHATREN - DIKA
 EMAKUME - EDERA - ETA - BOTE - ATZUA
 BESTE - PEATSOYA - MITOLOGIKO
 SUZTIEV - YARUSIA
 EKAIZAK - ETA - SUTEAK - DAKA
 BERE - BIZARRAK - SU - GARRAK
 AINMA - ETKEBERAIA - BURTE



San Juan Sua

<< **TXIKIEN**
ESKUTIK

IKASTORDUZ KANPOKO EKINTZAK

ASIER XAKE IRAKASLEA

Nongoa zara?

Tenerifen jaioa eta Oreretan sortua.

Zenbat urte daramazu Egape Ikastolan?

4. urtea izan da aurtengoa.

Beste zaletasun bat?

Irakurtzea.

Haurraren garapenean ekintza honen onurak aipa itzazu.

Luze eta zabal hitz egin da xakea aritzeak dituen onureta. Laburbilduz, xakeak beste ikasgai batzuetan eta eguneroko bizitzan lagungarri suertatzen diren hainbat funtzio intelektual garatzea ahalbidetzen duela esan liteke. Hauez gain, mekanismo intelektual konplexuagoak ere lantzen ditu, hala nola, hipotesien plan-teamendua eta planifikazioa, memoria espaziala, alternatiba desberdinetaz jabetzea, irudimena eta sormena, problemen ebazpe-nean kausa-efektuen erlazioen sorkuntza, abstrakzio gaitasuna eta pentsamendu logiko razionala.

Kontaiguzu urte hauetan ikasleekin izan duzun esperientzia.

Egapeko ikasleak beste edozein lekutakoak bezalakoak dira, gauza aspergarriekin aspertzen diren horietakoak alegia. Ikasten ari direla ez konturatzea da xedea.

ALAIA BERTSO ESKOLAKO IRAKASLEA

Nongoa zara?

Oiartzuarra.

Zenbat urte daramazu Egape Ikastolan?

Bi ikasturte.

Beste zaletasun bat?

Musika eta zinema.

Haurraren garapenean ekintza honen onurak aipa itzazu.

Ahokotasuna lantzen dugu, Euskal kulturaren ondare den bertsolaritzari esker, hitzei geure mingainen eta nahien forma emanaz, eta norberarengan konfiantza izatea zein garrantzitsua den azpimarratuz.

Kontaiguzu urte hauetan ikasleekin izan duzun esperientzia.

Ikasle ugari pasa dira dagoeneko bertso-eskolatik. Ideia xeledunak batzuk, hizkuntzaren errege-erreginak besteak, jakinmina zuten bakan batzuk, bertsoa hezurretaraino sartuta zuenen bat... eta aurrerapen handiak egin dituzte guztiek ere.

Ikusiko duzuenez, Egape Ikastolak, irakastorduz kanpo, ekintza ugari eskeintzen dizkie ikasleei.

Zergatik hori? Zer helbururekin hain eskaintza handia? Zer eragina dute ikasleengan ekintza osagarri horiek?...

Galdera hauen erantzunak jakiteko eta beste gauza batzuez jabetzeko, irakur ezazue zer kontatzen diguten ekintza horiek aurrera eramaten dituzten irakasleek.



Nondik datorkizu ekintza honekiko zaletasuna?

Ni berandu lotu nintzaion xakeari. Konforme nengoen klaseko onena izatearekin nonbait. Saiatu nintzenean ordea mundu berri bat zabaldu zitzaidan, non klaseko onena izateak bigarren maila batetara pasatu zen. Nire buruarekin zen erronka.

Zure klaseen ezaugarriak azalduko al dizkiguzu?

Nire klaseek salbuespenak salbuespen honako formatoa daukate: Ikasleak berak bizitako esperientzietatik ateratako ondorioen bitartez ikastea; Ondorioztaturikoa ulertu eta barneratzea; Ikasitakoa praktikan jartzea.



Nondik datorkizu ekintza honekiko zaletasuna?

12 urtetan egin nuen lehen esperimendua, bertso eskolan apuntatuta. Geroztik nire bitzaren zutabeetariko bat izan da bertsolaritza, mundu txiki bat, munduan leku bat aurkitzen lagundu didana. Anaia ere bertsolaria dut, eta ziurrenik haren lilurak ere izango zuen zerikusia nire zaletasunaren jaiotzan.

Zure klaseen ezaugarriak azalduko al dizkiguzu?

Ahoz zein idatziz bertsoak idazten, kantatzen eta komentatzen ibiltzen gara, bertsoak bizitzara eramanez, eta alderantziz. Tresna bezala, erabilgarri eta gozagarri bezala bizitzen dugu bertsoa bertso eskolan. Umorerako eta sentimenduen askapenerako tartetxo bezala.

ARKAITZ MINER

GITARRA IRAKASLEA

Nongoa zara?

Oreretakoa

Zenbat urte daramazu Egape Ikastolan?

Lau urte

Beste zaletasun bat edo zerbait aipagarria dena?

Oroar musika, gitarra jotzeaz aparte arrabita ere jotzen dut, honen iada nahikoa da nik uste. Nire lanbidea hau denez, musika kurtsoak emateaz aparte hainbat talde eta kantarirekin jotzen dut: Ruper Ordorika, Mikel Markez, Arrabots, Aintzina...



Haurraren garapenean ekintza honen onurak aipa itzazu.

Musika klaseak ematen ditudanean saiatzen naiz haurrarekin zerikusia duen musika ala munduarekin lotzen, horrela berarentzat zentzu handiagoa dauka. Irakaskuntzan eskas dagoen sormena eta zaletasunaren aldea eskeintzea da nire helburua.

Kontaiguzu urte hauetan ikasleekin izan duzun esperientzia.

Harreman oso ona eduki dut ikasleekin. Pozgarria izan da ikustea ikasle batzuk gerora bere bidea hartu dutela musika taldeetan jo, kantatu eta sortuz. Horrela ez bada ere ziur nago guztiek zerbait ezagutu, ikusi eta sentitu dutela.

Nondik datorkizu ekintza honekiko zaletasuna?

Nire etxean anaien artean beti egon da musikarako joera. Nahiz paraleloki musika ikasketak egiten nituen, benetako motibazioa kontserbatoriotik kanpo gertatzen zen: lehenbiziko rock banda osatu nuenean emozio handia sentitu nuen.

Zure klaseen ezaugarriak azalduko al dizkiguzu?

Oroar saiatzen naiz gitarrako klaseetan denetarik egiten: Alde batetik beharrezkoa den gutxieneko trebezia lantzen. Bestetik nik proposaturiko eta ikasleek proposaturiko kantak lantzen ditugu.

XABI

GITARRA IRAKASLEA

Nongoa zara?

Donostiarra, Antigua auzokoa

Zenbat urte daramazu Egape Ikastolan?

Bukatu berri den hau laugarren ikasturtea izan da

Beste zaletasun bat?

Liburuak, komikiak, zinea... Baina garrantzitsuenak musika sortu eta eszenatokietan jotzea.



Haurraren garapenean ekintza honen onurak aipa itzazu.

Musikaren zaletasuna pizten denean, betirako da. Sorkuntzarako tresnak ematen ditugu; zerbait sortzea haurraren auto estimaren garapenerako oso baliagarria dela uste dut. Eskuen koordinaziorako egiten den lanaz gain, besteei entzun eta elkarrekin jotzen ikasten dugu, baita ere kantu bat bakarka eramaten jakitea, beste guztien aurrean protagonista izatea.

Kontaiguzu urte hauetan ikasleekin izan duzun esperientzia.

Esperientzia oso positiboa da. Ikasle batzuk artistak izango dira. Gehienek musika ulertzeko eta gozatzeko gaitasuna daramate beraiekin betirako. Ikasle ohiak urte batzuen ondoren nora iritsi diren ikustea oso pozgarria da.

Nondik datorkizu ekintza honekiko zaletasuna?

Askotan harritzen naiz musika jotzen 25 urte eman ondoren, horietako gehienak profesionalki, egunero musikan murgilduta ordu asko eman ondoren, oraindik musikaz nola gozatzen dudan, nola dibertitzen naizen, jarrai dezala... Zaletasuna ia betikoa dela esango nuke.

Zure klaseen ezaugarriak azalduko al dizkiguzu?

Gitarraren ezaugarriak ikasten ditugu, afinazioa, gaitasun melodikoa, eritmoa eta armonia. Eskuak trebatzeko ariketak egiten ditugu eta kantuak jotzen ikasten degu, batzuk nik proposatzen ditut, beste batzuk ikasleek, modan daudenak, euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez... Zailena eta ederrena kantuak sortzen ditugunean da.

EDU MURUAMENDIARAZ DANTZA IRAKASLEA

Nongoa zara?

Bergarakoa.

Zenbat urte daramazu Egape Ikastolan?

12 urte daramatzat Egape dantza taldean lanean.

Beste zaletasun bat?

Kirola.

Haurren garapenean ekintza honen onurak aipa itzazu.

Dantzak eragina du hainbat arlotan. Motrizitatea hobetzen du, elastizitatea ere, espazialki bere burua kokatzeko laguntzen dio umeari eta sozializatzeko modu bat ere bada. Beraien arteko harremanak sendotzen dituzte, normalean erlaxionatzen ez direnkin ere. Era berean ikasleen sensibiltate artistikoa garatzen da eta jendaurrean azaltzeko beldurrei aurre egiten ere laguntzen du.

Kontaiguzu urte hauetan ikasleekin izan duzun esperientzia.

Hasiera batean gogorra izan zen, lehen bi urteetan batik bat. Helduekin lan egitera ohituta nengoen eta hor nolabait nire helburuak beteak nituen. Hortik 4-5 urtekoekin lan egitera pasatzea ez zen erraza izan. Beraiekin lan egin ondoren konturatzen zara nolako gaitasuna duten gauzak ikasteko; dena xurgatzen dute, ikusgarria da. Hasierako 30 ikasle haietatik 200 ikasle izatera pasa gara.



Nondik datorkizu ekintza honekiko zaletasuna?

Gure garaian ez zegoen gaur adina aukera gaztetxoentzat, pilota, futbola eta dantza ziren Bergarako ikastolako aukera bakarrak, eta nik azkena aukeratu nuen, nire bizimodua bilakatu dena.

Zure klaseen ezaugarriak azalduko al dizkiguzu?

Egape dantza taldeko dantzak, dantza tradizionalen oinarritzen dira eta garai berrietara egokitzen saiatzen gara dantza garaikideko, klasikoko eta koreografiaren munduko kontzeptu berriak garatuz. Koreografiari dagokionean beraien autonomia bultzatzen saiatzen naiz beraien proposamenak indartuz. Horrekin batera jantziek eta musika doinuek garanti berezia hartzen dute. Nire azken xedea dantzarekin disfrutatu eta zoriontsu izaten laguntzea litzateke.

???

JUDO IRAKASLEA

Nongoa zara?

Nahiz eta 20 urtez Hernanin bizi, ni berez Donostiako Loiola auzoan jaio eta bizi izan naiz. 13 urterekin Judoa aukeratu nuen jarduera serio bezala, eta 17 urterekin gerriko beltza ateratu nuen Donostian. Ondoren, pixkanaka, maila ezberdinak gaindituz, monitore, entrenatzaile eta Espainako maisu entrenatzailea lortu nuen.

Zenbat urte daramazu Egape Ikastolan?

Hamar bat urte izango dira honezkero, gogoan dut urte haietan Judo klaseak arratsaldean hasi genituela eta oso harrera ona izan zuela.

Beste zaletasun bat?

Beno, mendian ibiltzea, eskia, eta kirolarekin zer ikusia duen edozer, bidaitzea, leku berriak ezagutzea, familiarean egon, 13 eta 10 urtetako bi alaba ditut eta hauek ere eskatzen dutenaren menpe egoteak nahiko lan ere badu.

Haurren garapenean ekintza honen onurak aipa itzazu.

Judoa kirol bezala psikomotrizitatea, bizkortasuna, koordinazioa, erreflexuak eta kontaktua eskeintzen ditu eta guretzat oso garrantzitsua den beste ezaugarri bat elkarren gorputz ukipenari beldurra galtzea litzateke.

Kontaiguzu urte hauetan ikasleekin izan duzun esperientzia.

Oso esperientzia bikaina izan dela aitortuko dizuet. Ikastolako haurrek eskeintzen duten lana, orokorrean, beste talde batzuekin alderatuta, abantaila gehiago eskeintzen ditu; halanola, beraien arteko harremana sendoagoa eta landuagoa dago, eta modu honetan klaseak emateko garaian hau nabaritzen da.



Nondik datorkizu ekintza honekiko zaletasuna?

Lehen aipatu bezala betidanik izan dut gustuko kirola egitea, egun batean talde bateko entrenatzaile batek animatu ninduen bere us-tez Judoa egiteko berezitasun egokiak nituelako.

Zure klaseen ezaugarriak azalduko al dizkiguzu?

Berez klaseak beste edozein ekimen moduan antolatuta daude, hau da ordutegi bat, berotze ekimen batzuk ..., baina nire ustez, aipagarriena Judoak kirol moduan transmititzen dituen baloreak haurrei ezaguraztea litzateke: bestearekiko errespetua eta nahiz eta banakako kirola izan beti aurrekoa bat behar duzula izan.

LARA MITXELENA TXALAPARTA IRAKASLEA

Nongoa zara?

Hernanikoa.

Zenbat urte daramazu Egape Ikastolan?

3 ikasturte.

Haurren garapenean ekintza honen onurak aipa itzazu.

Taldean lan egitea; bat bateko inprobisazioa; bikotearekiko errespetua; erritmoa eta abilezia

Kontaiguzu urte hauetan ikasleekin izan duzun esperientzia.

Oso oroitzapen onak ditut eta gaur egun oso esperientzia politak izan ditut ikasleekin. Klaseak azkenean klaseak dira, batzuetan tekniko eta gogorragoak eta beste batzuetan dibertigarriak eta esperimentalak. Baina dudarik gabe, momenturik onenak eszenatoki bateara igotzen ikusi ditududanean ikasleak, urduritasunak, nerbioak... aldatu ezina.

AMAIA TXALAPARTA IRAKASLEA

Nongoa zara?

Donostiakoa.

Zenbat urte daramazu Egape Ikastolan?

Bukatu dugun ikasturte hau hirugarrena izan da.

Beste zaletasun bat?

Orokorrean musika dut oso kuttun.

Haurren garapenean ekintza honen onurak aipa itzazu.

Txalaparta jotzeko ezinbestekoa da laguna. Elkarlana ezinbestekoa da txalapartan. Uste dut garrantzitsua dela haurra elkarlanean garrantziaz jabetzea eta txalaparta aitzakia ederra da horretarako. Teknikoki, erritmoaren lanketa oso interesgarria da haurrarentzat. Musikaren oinarri oinarrian dago erritmoa eta oinarri horretan hezitako haurrak musika ulertzeko tresna baliogarria izango du. Koordinazio fisikoa txalapartan lantzen den beste esparru bat da..

Kontaiguzu urte hauetan ikasleekin izan duzun esperientzia.

Esperientzia oso positibotzat jotzen dut. Haurrentzat eskuetan makilak hartu eta txalapartaren oholak jotzea dibertigarria da oinarrian. Gero, erritmoak ikasten joan ahala beraien kantatxoak sortzeko gai direla ikustea oso indargarria da beraientzat.



Nondik datorkizu ekintza honekiko zaletasuna?

Hernani oso herri musikazalea da eta Nola ez beti egoten dira taldeak kalean jotzen. Behin txalapartari batzuk ikusi nituen azkar azkar jotzen eta, nik instrumentu hura jo behar nuela esan eta egin nuen.

Zure klaseen ezaugarriak azalduko al dizkiguzu?

Txalaparta jotzea inprobisatzea da. Horregatik, klaseetan ariketa teknikoak egiteaz gain inprobisazioa eta saio libreak egiten ditugu. Txalapartari bakoitzak bere jotzeko era dauka eta horrek egiten du saio edo emanaldi bakoitza berezia eta bakarra izatea.



Nondik datorkizu ekintza honekiko zaletasuna?

Musika hezkuntza oso garrantzitsua izan da niretzat. Interes handia piztu zidan musikak oso txikitatik eta txalapartak harrapatu egin ninduen. Gaztetxo ginela lagun batzuk lau ohol zahar lortu eta zertxobait saiatzen hasi ginen. Beranduago irakasle desberdinekin ikasi ahal izan nuen txalaparta eta interes itzelaz landu, nire bokazio bihurtzeraino.

Zure klaseen ezaugarriak azalduko al dizkiguzu?

Txalapartan lantzen ditugun erritmo desberdinen azalpenak eman ondoren, ariketa proposamen desberdinekin erritmo hauek menperatzen doaz haurrak pixkanaka. Sormena landu dezaten beraien melodiatxoak asmatzeko dinamikak planteatzen ditut ondoren, luzera eta zailtasunean aurrera eginez.

DBH 2011/12 IKASTURTEARI ATZERA BEGIRA



► 4. mailako ikasbidaian ekintza asko egin zituzten: Paintball, itsasoan txangoa -argazkian, Katamaraneko eskifaiaren agurrean-, kainoi jeitsiera...



► DBHko ikasleek gogoz parte hartu zuten "Xibak" antolaturiko herri kiroletako topaketetan. 1. mailakoak Gipuzkoako txapeldun gelditu ziren. ZORIONAK!



► 4. mailako ikasleak Oiasso museoa bisitatu zuten, erromatarrek Irun eta inguruetan utzitako aztarnak ezagutu asmoz.



BETIRARTE!

Aldizkari hau denda, saltegi eta merkataritza jardundegi hauen laguntzari esker argitaratzen da

Estankoa (Arantxa)
Etxaniz ferreteria
Fagoaga harategia
Labetxo okindegia

L. Belaunzaran harategia
Matxo ardo-salmenta
Ongi Etorri taberna



Urnietako Udalak
diruz lagundutako aldizkaria